



# Autobus zaharra

Egunero autobusa hartu behar dut ikastolara joateko. Orain dela gutxi arte, ikastolako autobusa zahar-zahar horietako bat zen. Urdina. Batzuetan, asko kostatzen zitzaion arrankatzea, bes-teetan, aldapa igo ezinik geratzen zen edo gurpilen bat zulatzen zitzaion. Baina guk primeran pasatzen genuen. Denontzako lekurik ez zegoelako pilaturik joaten ginen, leihoetatik buruak atera, goikaldeko barratik zintzilik, egunerõ gatazka eta zalaparta ugari izaten zen. Martin txoferra desesperatu egiten zen gurekin.

Egun batean, Gabonak baino lehenago, ez dakit zer gertatu zitzaion autobusari. Hots arraro batzuk atera zituen ikastolako aldapa igotzen hasi orduko. Eztulka hasi eta dardarizo baten ondoren bidean gelditu zen, bertan kieto.

Euria hasi zen eta jaitsi behar izan genuen eta oinez abiatu ikastolara.

Autobus zaharra hantxe geratu zen, bide bazterrean eta guri autobus berri bat ekarri ziguten.

Oraingo autobusa handia da. Bakoitzari eserleku bana dago kigu eta bere leihoak zabaltzen ez diren horietakoak dira. Autobuseko ateak Martinek barrutik zabaltzen ditu botoi bat saketuz eta jadanik ez dago autobusean sartzeko iskanbilarik.

Gaur, ikastolako aldapa hasterakoan, autobus berria gelditu egin da. Zer gertatuko ote zen eta denok leihoetatik begira jarri

arrankatzea : abiatzea.

gurpilen bat : errota.

Cabonak : Eguberri.

bertan kieto : han geldi.

eserleku : jarleku.

sakatuz : zapatuz.

iskanbilarik : nahasmenturik, kalapitarik.

► Atziki egokiak gehituz (-ka, -z), taula honetako erranaldiak molda itzazu *mintzatu, laster* eta *gibel* hitzak erabiliiz.

| Hasiera | Bukaera |
|---------|---------|
| ka/z    |         |

Arratsalde oroz kirola egitean, ..... ibiltzen naiz.  
Zure irakaslearekin ..... jakinen duzu egia.  
Autoari arrasta ez genion eman eta ..... abiatu zen patarra behera.

► -tik landa :

Erranaldi hauek idatz itzazu “-tik landa” lokuzioa erabiliiz.

Adib. : Lana egin eta jinen naiz zuregana. → Lanetik landa jinen naiz zuregana.

- Eskola bukatzen denean erreka ondora joanen gara.
- Pausaldia bururatu eta liburu hori irakurriko dugu.

► -(r)ik :

Erranaldi hauek ezezko moldean ezarriko dituzu “-(r)ik” atzikia erabiliiz.

Adib. : Aitak xakurra ikusi zuen kanpoan. → Aitak ez zuen xakurrik ikusi kanpoan.

- Alzo eguerditan, amaxirenen ebxean, salda bazen mahai gainean.
- Xori bat leihora hurbildu zitzaigun.

### ③ BERRIZ IRAKUR

► Pasarte honetan erranaldi bat ahantzi dugu. Aurki ezazu eta pasarte berriz idatz bere osotasunean.

*Oraingo autobusa handia da. Autobuseko ateak Martinek barrutik zabalitzen ditu botoi bat sakatuz eta jadanik ez dago autobusean sartzeko iskanbilarik.*

*Gaur, ikastolako aldapa hasterakoan, autobus berria gelditu egin da. Zer gertatuko ote zen eta denok leihoetatik begira jarri gara : grua bat autobus zaharra eraman nahian zebilen eta gizon batzuek maniobrak zuzentzen zituzten. Denok oso triste geratu gara autobus zaharra, arrastaka, dingili-dangala nola eramaten zuten ikustean.*

gara: grua bat autobus zaharra eraman nahian zebilen eta gizon batzuek maniobrak zuzentzen zituzten. Denok oso triste geratu gara autobus zaharra, arrastaka, dingili-dangala nola eramaten zuten ikustean.

25

Mariasun LANDA, *Iholdi*, Erein.

## 1 ULERMEN GALDEAK

- Nork kontaktzen du istorioa ?
- Nolakoa da autobusa ?
- Zer gertatzen zaio ? Zure hitzekin konda ezazu.
- Zer kanbiatu da autobus berria ukanez geroz ?
- Zure ustez, norat eraman zuten autobus zaharra ?
- Autobus zaharra zer bilakatu den asma ezazu.
- Zer konparatzen da autobus zaharra ? Erranaldia atzeman ezazu.

## 2 JOSKERA

► baino lehen :

*Egun batean, Gabonak baino lehenago, ez dakit zer gertatu zizaiaion autobusari.*

"baino lehen" erramoldea leku egokian erabil erranaldi hauetan :

*Ximunekin joan nintzen Orhi mendi kaskora eta handik jautsi aitzin argazki eder bat egin genuen.*

*Ikasgelan sartu aitzin, haur guziak, tirrinta entzun eta elgarretaratu ziren.*

► -z atzikia :

*Ziloak bete itzazu hitz hauek leku egokian ezarriz : oinez, kantuz, harriz.*

*Ogi puska bat sakelan har eta etxetik mendira buruz .....  
joan nintzen makila eskuan. Mendi kaskoan ..... hasi nintzen eta bi bertso eman nituen. Mendi mazelan zen oihan bazterrean, exola bat ..... eraiki nuen.*